

ETXEAN EGUNEROKOTASUNEAN ENERGIA AURREZTEKO AHOLKUAK

ISOLAMENDUA

- Pertsianen kuxak ondo isolatuta egon behar dira, zirrikiturik gabe.
- Gaez pertsianak jaitsi, kanpora berotasun gutxiago joateko.
- Egiatzatu ez dagoela aire-korronterik leihoetan, ateetan edo kanpoko airea sartu ahal den lekuetan. Eta kanpotik airea sartzen dela antzemanaz gero, estali zirrikituak silikonaz, mastikaz edo burletez.
- Etxebizitzaren itxiturei (sabaia, hormei, zoruei) eragingo dieten berritze- lanak egiten dituzunean, aprobetxatu eta ezarri isolamendu termikoa.

Etxebizitza isolatzeko hobekuntzek % 30-40 bitarteko energia eta dirua aurrezten lagun diezagukete.

BEROKUNTZA

- Berokuntzaren helburua ez da etxean norbera bero izatea, hotzik ez izatea baizik.
- **Aireztatu etxea eguneko lehen orduan eta berokuntza abian jarri aurretik.** 10-15 minutu nahikoa dira etxea egoki aireztatzeko, horrela etxean behar ez diren bero-galerak saihestuko dituzu.
- Ez estali eta ez oztopatu erradiadoreak.
- Ezarri balbula termostatoak erradiadoreetan, gela bakoitzean tenperatura desberdina izateko moduan.
- Etxebizitzetan 19 eta 21 °C arteko tenperatura nahikoa da sentazio termiko atsegina izateko. **Egunez, termostatoa 19°C-tan edukitzea nahikoa da, hortik gorako gradu bakoitzak % 7 altxaraziko du kontsumoa.**
- **Gaez, hobe da berokuntza gailuak itzaltzea edo 16°-17°C-tan uztea,** absentzia luzeetan gauza bera egin.
- Berokuntza-sistemen instalazioa berrikusi. Egoera txarrean dagoen aparatu batek kontsumoa handitu dezake, eta, gainera, ezohiko gastuak saihesten dira hausturengatik. Aurrezkia % 15ekoa izan daiteke.
- Galdara berritzeko orduan, kondentsazio-galdara aukeratu. Zenbat eta errendimendu handiagoa, kontsumo txikiagoa izango du galdarak eta, ondorioz, kostu txikiagoa ere.
- Termostato normalaren orde, erabili termostato programagarria, egunaren arabera eta eguneko orduaren arabera tenperatura desberdina programatzeko moduan.
- Isolamendu ona edukitzeak % 50era arteko bero-ihesak saihestu ditzake.

Negua iritsi aurretik, erradiadoreak purgatzea gomendatzen da. Aurrezteko potentziala: % 5.

ARGITERIA

- Aprobetxatu argi naturala eta ez utzi bonbillak piztuta beharrik gabe. **Argia gutxiago erabiltzea energia aurrezteko da.**
- Margotu hormak eta sabaia kolore argiz, argi naturala hobeto aprobetxatzeko.
- Mantendu garbi lanparak, pantailak eta tulipak, argitasunik ez galtzeko.
- Ahal bada, saihestu bonbilla asko dituzten lanparak.
- Argia eremuaren arabera egokitu; gela berean ere, ez da beharrezkoa eremu guztietan argitasun berdina egotea.
- Erabili kontsumo txikiko lanparak (elektronikoak badira hobeto), edo LED motakoak: A edo maila handiagoko energia-etiketadunak.
- Ezarri argi-intentsitaterako erregulatuak elektronikoak.
- Pasabideetan (atondoan, garajeetan...) ezarri presentzia-detektagailuak.

Argiteriak etxean kontsumitzen dugun energiaren % 10 inguru hartzen du; energia-premiarik handienetakoa da.

GAS ETA ELEKTIZITATE KONTSUMOA

- Hartu ohitura gasaren eta elektrizitatearen fakturak irakurtzeari 5-10 minutu eskaintzeko.
- Gasaren eta elektrizitatearen kontratuko hornidura-baldintzak merkatuko beste eskaintzekin aldera ditzakezu hurrengo web-gunean: <https://comparador.cnmc.es>.
- Gasa batez ere ura berotzeko erabiltzen da.
- **Galdara egoki mantenduz gero, energiaren % 15 aurrez daiteke.**
- A+++ etiketa duten etxetresna elektrikoek energia gutxiago kontsumitzen dute funtzio berbera betetzeko.
- Telebisten kasuan, LCD pantailak energiaren % 37 aurrezten dute aparatu tradizionalekin alderatuta.
- **Ez utzi argirik piztuta gela hutsetan.**
- Kontsumo txikiko bonbillak erabili. Bonbilla horiek ohizkoek baino % 80 gutxiago kontsumitzen dute argiztapen-maila bererako, eta zortzi aldiz gehiago ere irauten dute (ez dira gomendagarriak argia etengabe pizten eta itzaltzen diren lekuetan).

Gas naturalaren kontsumoa bizitokietako osoko energia-kontsumoaren % 45 da.

ETXEAN EGUNEROKOTASUNEAN ENERGIA AURREZTEKO AHOLKUAK

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

- **Edozein etxetresna elektriko aldatzeko orduan, aukeratu A+ edo gehiagoko etiketa dutenak**, zure premietara egokitutako tamainarekin eta prestazioekin.
- Orduaren araberako tarifa kontratatu baduzu, ahal dela, jarri gailu ezberdinak deskontuko orduetan.
- Garbiketa eta mantenu lanak gutxienez urtean behin egin aparailu ezberdinen funtzionamendu optimoa bermatzeko.
- Ahal duzun guztietan, jarri martxan garbitzeko etxetresna elektriko guztiak osorik beteta daudenean, bestela karga erdiko programak erabili.
- Ez sartu inoiz jaki beroak hozkailuan; aurretik hozten utziz gero, energia aurreztuko duzu. Desizoztu janaria zuzenean hozkailuan jarrita, doako hotz-irabaziak izango dituzu.
- Berrikusi eta aldatu izozkailu eta hozkailuen gomazko junturak hondatuta daudenean: atea ez bada ongi ixten, barruko tenperaturak gora egingo du eta ekipamenduak energia gehiago kontsumituko du berriz hozteko.
- Ahal duzun guztietan, aprobetxatu eguzki-beroa arropa lehortzeko.
- Ahal duzun guztietan, garbitu ur hotzez edo tenperatura baxuan.
- Ontzi garbigailuan mantendu beti beteta gatzaren eta distiratzailaren deposituak. Izan ere, energia-kontsumoa murrizten dute garbitzean eta lehortzean, hurrenez hurren.
- Ahal duzun guztietan erabili mikrouhin-labea sukalde elektriko edo labe arruntaren ordez.
- Labearen bero hondakina aprobetxatu jakiak prestatzen amaitu baino bost minutu lehenago itzaliz, bitrozeramikarekin gauza bera egin.
- Eskuarki, ez da beharrezkoa labea aurreberotzea ordubetetik gorako labealdiak egiteko.
- Erabili zeramikazko edo kristalezko ontziak labean. Gomendatutako tenperatura baino 25°C gutxiago berotu ahal izango duzula ikusiko duzu.
- Erabili etengailudun konexio-blokeak ekipo informatikoak eta telebistak konektatzeko eta denak batera itzaltzeko. "Stand by" egoeran edo funtzionatzeko zain daudenean egiten duten kontsumoa saihestuko duzu.

Indukziozko sukaldeek ohiko bitrozeramikazkoek baino % 20 gutxiago kontsumitzen dute.

- Portatil batek ordenagailu konbentzional batek baino % 50 gutxiago kontsumitzen du.
- Pilek sortzen duten energia sarearena baino 600 aldiz garestiagoa da.
- Etxean gehien kontsumitzen duen etxetresna elektrikoetako bat hozkailua da (kontsumo elektriko osoaren % 18), eta ondoren telebista eta garbigailua.
- Energia-kontsumoa, antzeko prestazioetarako, ia hiru aldiz handiagoa izan daiteke G motako etxetresna elektrikoetan A motakoetan baino.
- Gure berokuntza-beharren % 25 eta % 30 bitartean leihoetan sortzen diren bero-galeren ondoriozkoak dira.
- Berokuntzaren tenperatura igotzen dugun gradu bakoitzeko, energia-kontsumoa % 7 inguru igotzen da.
- Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak energia aurrezteko hobekuntza-neurriak jasotzen ditu.

UR BEROA

- Etxeko ur beroa beharrezkoa denean soilik erabili, eta ez utzi txorrotak irekita premiarik ez badago. **Ura aurrezteka energia aurrezteka da.**
- Hartu dutxak, bainuak hartu beharrean. Bainuak dutxak baino 4 bider ur eta energia gehiago kontsumitzen du. Saiatu dutxa 5 minututik gora ez luzatzen, normalean, nahikoa da higiene pertsonala mantentzeko.
- Norbera garbitzeko aski da ura 30°-35°C-tan irtetea. Egokitu zure sistema maila horretara.
- Ur berorako eta ur hotzerako txorrotak independenteak badira, ordeztu eta jarri mando bakarreko txorrotak.
- Eduki beti hodiak eta tanga akumulagailuak ondo isolatuta.
- Saihestu ur-ihesak eta itoginak.
- Ezarri kontsumo gutxiko dutxa-buruak, presioa jaisteko gailuak txorrotetan, eta termostatuaren tenperatura-erregulatzailak; energia kantitate handia aurreztuko duzu.

Ontzi garbigailuaren %90a ura berotzeko izaten da

